

AEDren Zuzendaritza Batzordearen oharra

"Idatzi honen bitartez, AED elkartearen Zuzendaritza batzordeak arrasatearrokin partekatu gura ditu iraileko bigarren asteburuan egindako Erdi Aroko azokak sortu dizkion kezka eta gogoetak. Eta, horrekin batera, Arrasateko Udalari eskaera zehatz bat egin.

Azokaren egitaraua iragarri zenean aurreikusi zitekeenez, gaztelera nagusi izan zen haren eskaintzan. Ikuskizunetan euskara umeei eskainitako kontu kontaketetan baino ez genuen entzun. Eta salmenta postuetan ere ez zuen tokirik izan, ez idatziz ez ahoz, hiru-lau mahaitan izan ezik.

Jakina da aurrekontua irizpide behinena izaten dela Udalek zerbitzu bat enpresa bati edo beste bati kontratatzeko. Dena dela, gure uste apalean, beste irizpide batzuek koste ekonomikoak besteko pisua izan beharko lukete, eskaintzen den zerbitzua gure hizkuntzaren eta kulturaren kaltetan izango ez bada. Eta oraingoan halaxe gertatu da.

Izan ere, euskararen erabileraz harago, gure kaleak girotu zituen azoka eredu horrek zerikusit gutxi du Erdi Aroan Arrasate izan zenarekin. Eta, horrenbestez, aukera ederra galtzen dugu garai oparo hartatik gaurdaino gorde dugun ondare aberatsa belaunaldi berriei ezagutaraziz zaintzen jarraitzeko. Besteak beste, arkitektura eta urbanismoa, egitura sozioekonomikoa, gertaera historikoak, ahozko tradizioaren arrastoak...

Gauzak horrela, AEDko Zuzendaritza batzordeak eskaera irmoa egiten die udal arduradunei Arrasateko historia eta kultura ardatz gisa izango lukeen eredu baten aldeko apustua egin dezaten, hurrengo urteetan Erdi Aroko azoka berriro antolatzeke asmorik izango balute. Esate baterako, euskarari lehentasuna emanaz, egitarauan tokiko artisau eta artistei leku eginez, herriko adituei eta ondarea zabaltzeaz arduratzen diren elkarteei ekarpenak eskatuz edota kultur taldeak azokan integratuz. Hala eginez gero, AED prest legoke bide horretan Udalari laguntzeko".